



Eibarren 675. urteurrena *Harro nago zutaz, Eibar! vs Amorratu egiten nauzu, Eibar!* argazkilaritza- lehiaketa

Eibarko Udalak, Ego Ibarra Batzordearen bidez, *Harro nago zutaz, Eibar! vs Amorratzen nauzu, Eibar!* argazkilaritza-lehiaketa antolatu du, honako oinarri hauen arabera:

OINARRIAK:

1. LEHIAKETAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da irudietan biltzea herriak dituen gauza onak eta txarrak, herrian maite ditugun gauzak eta amorratzen gaituztenak. Horretarako, **argazki bi hautatzeko** lehiaketaren baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura zehazten dira.

Lehiaketa honek hiriaren gorabeheretan interesa duten pertsonen **sormen artistikoa eta iritzi kritikoa** sustatu nahi du.

2. PARTE-HARTZAILEAK

Izena emateko epea hasi baino sei hilabete lehenagotik Eibarren bizi den adin nagusiko edonork har dezake parte lehiaketa honetan.

3. GAIA ETA ATALAK

Gaia: irudietan jasotzea herriak dituen gauza onak eta txarrak, herrian maite ditugun gauzak eta amorrarazten gaituztenak.

Lehiaketak 2 atal ditu: ***Harro nago zutaz, Eibar!*** eta ***Amorratu egiten nauzu, Eibar!***

- ***Harro nago zutaz, Eibar!***: Eibarrek dituen gauza onak, Eibarko herriaz harro sentiarazten gaituen hori irudikatzen duten argazkientzako.
- ***Amorratu egiten nauzu, Eibar!***: Eibarrek dituen gauza txarrak, Eibarren amorratzen diguna irudikatzen duten argazkientzako atala.

4. BALDINTZA TEKNIKOAK:

Lehiaketan parte hartzeko baldintza tekniko hauek bete behar dira:

Artxiboen tamaina:

JPG formatuan, gehienez ere 2000 pixelekoa alderik handienez; erresoluzioa 300 ppp.

Teknika:

Edozein teknika mota onartuko da.

5. LEHIAKETAN IZENA EMATEA ETA ARGAZKIAK BIDALTZEA

Izena emateko epea 2021eko abenduaren 2an amaituko da (egun hori barne)

Argakiak bidaltzeko **formulario bat** bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:
<https://www.eibar.eus/argazkiaebibar>



Formularioan datu hauek bete beharko dira:

- Izen-abizenak.
- NAN, AIZ...
- Helbidea.
- Harremanetarako telefonoa.
- Harremanetarako helbide elektronikoa.
- Argakiaren izena (leloa).
- Argazkia zer ataletakoa den:
 - 1.- Harro nago zutaz, Eibar!
 - 2.- Amorratu egiten nauzu, Eibar!
 - Igoko den argazki-fitxategiak formularioan jasotako lelo berbera izan behar du (xxx.jpg)

Argazki bakoitzeko izen-emate edo inskripzio bat egin beharko da.

Parte-hartzaile bakoitzak **gehienez argazki original 1 aurkeztu ahal izango du atal bakoitzean.**

Proposamena bidali ondoren, ezin izango da erretiratu.

Pertsonako argazki bat onartuko da atal bakoitzeko. Atal bakoitzean argazki bat baino gehiago aurkeztu bada, aurkeztutako lehen argazkia baliozkotzat joko da.

6. SARIAK

- **Atal bakoitzeko irabazleak 500** euroko saria jasoko du (dagokion zerga-atxikipena izango du).
- **150 euroko sari bi** emango dira, epaimahai ofizialak hautatutako argazkietatik, **herri-bozketa bidez hautatutako argazkietarako.**

7. EPAIMAHAIAREN OSAERA ETA HAUTAKETA

Sail bakoitzeko irabazleak eta argazki finalistak EIBARKO UDALAK (Ego Ibarra) eta KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI-TALDEAK osatutako epaimahai batek hautatuko ditu. Eibarko Udalak 5 boto izango ditu eta Argazki Taldeak 6.

Hautaketa horretan kontuan hartuko dira lanaren kalitate artistikoa eta argazkiaren mezua. Epaimahaiko idazkariak egindako hautapenaren akta egingen du, hitzarekin baina botorik gabe.

Epaimahaiak baztertu egingo ditu konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak edo iraingarriak diren argazkiak.

8. HERRI-GALDEKETA IREKIA

Epaimahaiak aukeratuko duen argazki finalistak Udalaren webgunean jarriko dira herritarrek botoa eman eta sail bietako argazki bana aukera ditzaten. Betiere, Epaimahaiak hala egitea erabakiko balu.

Atal bakoitzeko argazkiak aukeratzeko bozketan 14 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute, botoa ematen duten unean Eibarren erroldatuta daudenek.

Bozketa egiteko, esteka honetan dagoen formularioa bete behar da:
<https://www.eibar.eus/argazkia675>

Identifikazio-datuak bakarrik bete beharko dira, eta atal bakoitzeko argazkietako bat aukeratu.



Udalak egiaztatuko du erroldatze- eta adin-baldintzak betetzen direla.

Pertsona bakoitzeko boto bakarra onartuko da atal bakoitzeko. Boto bat baino gehiago eman bada, emandako lehen botoa baliozkotzat joko da.

9. EGUTEGIA

- **Izena emateko eta argazkiak bidaltzeko epea:** 2021eko abenduaren 2an.
- **Epaimahaiak atal bakoitzeko irabazleak eta argazki finalistak aukeratu eta jakinaraziko dituen eguna:** 2021eko abenduaren 14an.
- **Atal bietako argazki finalisten erakusketa eta herri-galdeketa, Epaimahaiak hala egitea erabakiko balu:** 2021eko abenduaren 17tik 31ra, herritarrek botoa eman dezaten.
- **Herri-kontsultaren botoen kontaketa eta atal bakoitzeko argazki irabazlearen jakinarazpena (hala egitea erabakiz gero):** 2022ko urtarrilaren 10a.

10. AURKEZTUTAKO LANAK

Finalera iritsi diren argazkien jabe guztiek baimena ematen diote Udalari beren proposamenak www.egoibarra.eus webgunean erakusteko herri-bozketa egiteko xedez

Aurkeztutako gainerako lanak suntsitu egingo dira, betiere, argazkien egileek, idatzi bidez, obraren jabe legez ezartzen dituzten xedeetarako Udalari erabiltzen uzten ez badiote.

11. LANEN ORIGINALTASUNA ETA JABETZA-ESKUBIDEA

Lan guztiak originalak izango dira. Ezingo dira erabili osorik edo zati batean hirugarrenen lanik.

Argazki irabazle bien egileek Eibarko Udalari lagatzen dizkie lan irabazlearen ustiapen-, erreproduktzio-, manipulazio-, edizio- eta erakusketa-eskubideak, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretuaren 17. eta 48. artikuluetan ezarritakoaren arabera, betiere.

12. OINARRIAK ONARTZEA ETA IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek, epaimahairen epaia, eta herri-bozketaren epaia onartzea dakar; baita Eibarko Udalak gaiaren inguruan ematen dituen ebazpen guztiak ere.

Informazioaren tratamenduan kontuan hartuko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikatu beharreko gainerako xedapenak.

Lehiaketaren antolaketarako departamentuari euskarri informatikoa emateko erabiliko dira datu pertsonalak, interesdunak emandako baimenean oinarritua eta tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoekin bat etorritik. Horrela daude jasota hurrenez hurren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluko a) eta e) letretan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan.

Tratamenduaren erantzulea: Egoibarra. Telefonoa: 943 70 84 23.

Emaila: egoibarra@eibar.eus.



Eskubideak: Gogorazten dizugu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, aurka egiteko edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea duzula. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar diozu Eibarko Udaleko tratamendu-arduradunari, helbide honetara: Untzaga plaza 1 – 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Datu hauek eman behar dituzu: izen-deiturak, jakinarazpenetarako helbidea, eskabidea, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

13. PUBLIZITATEA

Deialdi honen testu osoa Udalaren webgunean dago: www.eibar.eus

14. KUDEAKETA-ERAKUNDEA

Interesdunek argibideren bat edo galderaren bat egin nahi izanez gero, Eibarko Udaleko Ego Ibarra Batzordearekin harremanetan jarri ahal izango dira, telefono honetara deituz: 943 70 84 21 / 943 70 84 23 edo posta elektronikoz: egoibarra@eibar.eus

15. APLIKATZEKO LEGERIA

Sariak emateko, deialdi honetako oinarri arautzaileetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzeko xedapenetan, Eibarko Udalaren 2020ko Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan, aplikagarri diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauetan ezarritakoa aplikatuko da, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko gainerako arauetan ezarritakoa. Sariak justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 30.7 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.